

SEIGARREN ORDENANTZA FISKALA

ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA LANEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasuna arautzen duen Foru Arauean eta Zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoari jarraiki, Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zerga ezarri eta ordaintzera behartzen du, hori Ordenantza honen arabera egingo da eta horren zati banaezin den Eranskinean datoz jasoak aplikagarri diren tarifak.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua.- Obretako lizentzia edo hirigintza lizentzia behar duen edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurreko jakinarazpena aurkeztea dakarren edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga honen egitate, lizentzia hori jaso edo ez arren, baldin eta lizentzia ematea edo kontrola gauzatzea udal honi badagokio.

4. artikulua.- Besteak beste, honako hauek zergapeko egintzak dira:

- 1.- Oinplano berriko mota guztietako eraikuntzak eta instalazioak eraikitzeak obrak
- 2.- Mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Egitura ukitzen duten aldaketak edo berrikuntza obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.
- 4.- Kanpoko itxura aldatzen duten obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.
- 5.- Eraikinaren barruko banaketa aldatzen duten obrak, edozein dela ere eraikinaren erabilera.
- 6.- Behin-behinekoak izango diren obrak.
- 7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- 8.- Lur mugimenduak (lur erauzketak, hondeaketak eta betelanak, besteak beste), salbu eta horrelako lanak urbanizazio edo eraikuntza proiektu onetsi edo baimenduetan zehazturik eta programaturik daudenean.
- 9.- Eraikuntzak erraustea, hur-hurreko aurriaren deklarazioa dutenak izan ezik.
- 10.- Lurpeko instalazioak: aparkalekuak; industria, merkataritza edo lanbide jardueretarako instalazioak; zerbitzu publikoak; edo lurrazpiari ematen zaion beste edozein erabilera dutenak.
- 11.- Propaganda kartelak herri bidetik ikusteko eran jartzea.
- 12.- Edozein obra, eraikin edo instalazio, baldin eta gaitasun ekonomikoa erakusteko baliabide ekonomikoak inbertitzea eskatzen badute, eta obretako lizentziaren edo hirigintza lizentziaren mende badaude.

Ondorengoak dira, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3 artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obren jabe direnak, haiek dauden higiezinaren jabe izan zein ez.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.

Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, beraren ordezkotik subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen duena edo dagozkion erantzukizunpeko aitorpenak edo alde aurreko jakinarazpenak aurkezten dituena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena.

Ordezkoak zergadunari ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa eskatu ahalko dio.

III. SUBJEKTU PASIBOAK.

6. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun tituluaren arabera, hurrengo pertsona fisiko, pertsona juridiko edo erakundeak, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikulua arabera, eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak direnak, nahiz eta horretarako ez daukaten zergatik izanik, hori kokatzen den higiezinaren gaineko jabetzarik.

Aurreko paragrafoan aurrikusitako ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabe dela joko da, hori egiteko kostua edo gastua bere gain hartzen duena.

7. Artikulua.-

1.- Zergadunaren ordezkotik subjektu pasiboak direla joko da, eraikuntzak, instalazioak edo obrak egin edo horiei dagokion lizentziak eskatzen dituztenak, baldin eta eraikuntza, instalazioa edo obra zergadunak berak ez balu egingo.

2.- Ordezkoak zergadunari eska lezaioke, ezen ordaindutako zergaren kuotaren zenbatekoa itzul diezaiola.

IV. ZERGA-OINARRIA

8. Artikulua.-

1.- Zergaren oinarria eraikuntza, instalazio eta obraren benetako kostuak ematen du, eta ondorio horietarako ulertzen da, hori, haren exekuzio materialaren kostuaren arabera dela.

2.- Aurreko atalean erabakitakoaren ondorioetarako, zerga-oinarria, horren gainean egingo baita behin-behineko likidazioa, eraikuntzako obraren eta ingurua urbanizatzeko obra arrunten Exekuzio Materialeko Aurrekontua izango da.

Ez da zerga-oinarriaren barne sartuko, Segurtasun Azterketari eta Kalitatearen Kontrolerako Programari dagokion Exekuzio Materialaren Aurrekontua, ezta B.E.Z.-a, eta ezta ere erregimen berezikoak liratekeen antzeko beste zergak, ez tasak, ez prezio publikoak eta ez izaera publikoko ondareztako beste eskaintzak, horiek eraikuntzarekin, instalazioekin edo obrarekin zerikusia balute, eta ezta ere, profesionalen zerbitzu-sariak, kontratistaren enpresa-onura, eta ezta exekuzio materialaren kostuan, hertsiki, sartzen ez den edozein kontzeptu.

3.- Udal Baimenik gabe egindako Eraikuntza, Instalazio eta Obrak diren kasuan, Zerga Oinarriaren zehaztapena Udal Administrazioak berak finkatuko du.

V. ZERGAREN KUOTA.

9. Artikulua.- Zerga honen kuota, oinarri zergagarriari Eranskinean adierazten den zerga-tasa aplikatzearen ondorioz suertatzen den emaitza izango da.

VI. HOBARIAK

10. Artikulua.- Zergaren kuota gainean, hurrengo hobariak aplika daitezke:

1.- % 95eko hobaria aplikatuko da, udal interes edo erabilera berezikoak bezala deklaratuak izan diren eraikuntza, instalazio edo obrak direnena, baldin eta aitorten hori, inguruabar sozial, kultural edo historiko-artistikoen, edo enplegu-sustapenerako arrazoiek justifikatuko balute, baina hala ere, Tributuen Kudeaketa eta Ikuskaritza Atalak emandako aldeko aitortpena beharko da.

2.- 100tik 95eko hobaria, jadanik eraikitako eraikin eta instalazioetan, eguzki-energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikoa jasotzeko sistemak jartzen dituztenentzat.

Hobari hori aplikatu ahal izateko baldintza izango da ezen, eskumena duen administrazioak emandako homologazioa izan dezatela aipatu instalazioek. Hobari hori, bakarrik, horretarako erabiliko den kopuruaren gainean praktikatu da, eta bere kasuan, aurreko letran aipatzen den hobaria aplikatetik ondorioztatzen den kuotari aplikatuko zaio, eta beti ere, obra horiek obra berriaren proiektu baten zati ez badira, eta eraikina eraikitzeke obretatik kanpo egiten badira.

3.- % 90eko hobaria, ezgaituen sarbide eta bizigarritasun baldintzak jartzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obren mesedetan. Hobari hori soilik, helburu horretarako destinatzen den zenbatekoaren gainean, praktikatu da, eta baldin eta obrak ez balira obra berriaren proiektu batean barne sartuko, eta horiek eraikina eraikitzeke obretatik kanpo egingo balira.

VII. SORTZAPENA.

11. Artikulua.- Zerga, eraikuntza, instalazio edo obra hasten den momentuan, sortuko da, nahiz eta dagokion lizentziarik lortu ez bada ere.

VIII. KUDEAKETA.

12. Artikulua.- Aplikagarria izango da subjektu pasiboak ordaindu duen edo ordaindu behar duen zenbatekoaren kenkaria, hain zuzen, eraikuntza, instalazio eta obrari dagokion hirigintzako lizentzia emateagatik tasaren kontzeptupean ordaindutakoa, eta kenkari hori hobaria izan duen kuotaren gainean aplikatuko da, 10.1 artikulua kasuetan, udal interesagatik eta Zerga Kudeaketa eta Ikuskapen Atalak emandako aldeko aitortpenaren ondoren.

13. artikulua.- Derrigorrezko lizentzia ematerakoan, erantzukizunpeko aitortpena edo aurreko jakinarazpena aurkezterakoan, edo derrigorrezko lizentzia hori eskatu, eman edo ukatu gabe edo aitortpena edo jakinarazpena aurkeztu gabe eraikina, instalazioa edo obra hasiz gero, konturako behin-behineko likidazioa egingo da, interesdunek

aurkeztutako aurrekontuaren arabera zerga-oinarria zehaztuta, betiere dagokion Elkargo Ofizialak ikusi badu; bestela, zerga-oinarria udal teknikariek zehaztuko dute proiektuaren kostuaren arabera.

14. artikulua.- Lizentzia eman edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurreko jakinarazpena aurkeztu ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazioa berriro egiteko, aurrekontu berriak jatorrizkoa zenbatean gainditzen duen kontuan hartuta.

15. artikulua.- 1. Benetan egin diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien benetako kostua kontuan hartuta, udal administrazioak bidezko administrazio egiaztapena egingo du. Emaizaren arabera, beharrezkoa bada, zerga-oinarria aldatuko du, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion diruzenbatekoa itzuli edo eskatuko dio.

2.- Aurreko idatz-zatian ezarri denaren ondorioetarako, obra bukatu ondoko edo obraren behin-behineko harreraren ondoko hilabetearen barruan, inguruabar horren aitorpena aurkeztu behar da, udal administrazioak emango duen inprimakian. Aitorpenarekin batera, obrako zuzendariaren ziurtagiria aurkeztu behar da, dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsirik, derrigorrezkoa baldin bada. Ziurtagirian obren kostu osoa ziurtatu behar da.

16. Artikulua.- Zergaren gaineko kitapenaren ondoriotarako, isiltasun administratibo positiboa aplikatzearen ondorioz emandako baimenak, esanbidez emandako baimenak duen ondorio bera izango du.

17. Artikulua.- Udalak zerga hori, autolikidazio erregimenean, galdatu ahal izango du, eta zehazki, obra txikien likidazioak direnean, partikularrek etxebizitzetan eginak, eta zenbatekoa 12.020,00 € baino txikiagoa denean, autolikidazio sistema bidez izapidetuko dira, Hiritarren Arretarako Bulegoan, hurrengo zerga oinarriaren zehaztapenarekin:

ZERGA-OINARRIAREN ZEHAZTAPENA, HAIN ZUZEN, OBRA TXIKIEN BAIMENARI DAGOKION EIOZ-REN AUTOLIKIDAZIOETAN EGITEN DENA, HAIB-AREN PROZEDURA BIDEZ EGITEN DENEAN.

Aplikatzen den Arau Orokorra: Obren Exekuzio Materialeko Aurrekontuak, orokorki, ondoren adieraziko diren balorazio-moduluak aplikatzetik ondorioztatzen denaren berdina edo nagusiagoa izan beharko du, eta EIOZ-en autolikidazioa aipatu moduluetan oinarrituta egingo da, baina hala ere horrek ez dio kalterik eragiten, obren aurrekontua aurkeztu beharrari. Sukaldetako obrak diren kasuan, gutxieneko azalera 7 m².koa dela joko da, eta bainuetakoak direnean, 4m².koa.

Hondar-aplikazioa: Baldin eta obren aurrekontuan, hemen adierazitako balorazio-moduluetan bereziki agertzen ez diren diru-atalak, egongo balira, EIOZ-ren autolikidazioa praktikatzekoan, moduluen aplikaziotik lortutako diru-atalei, horietan barne sartu gabekoak gehituko zaizkio.

Erreferentziazko moduluak: EIOZ-ren autolikidazioei dagozkien Exekuzio Materialeko aurrekontuak, erreferentziazko hurrengo moduluen berdinak edo nagusiagoak izango dira:

ERREFERENTZIAZKO MODULUAK	
1.- Sukalde eta bainugelaren birgaiketa osoa Konputagarri izango den gutxieneko azalera, honako hau izango da: -sukaldea: 7m2 -bainugela: 4m2	908,35 €/M ² ERAIKITAKOA
2.- Lehioak aldatzea	581,59 €/UNITATEA
3.- Blindatu gabeko ateak aldatzea	216,32 €/UNITATEA
4.- Blindatutako ateak aldatzea	889.05 €/UNITATEA
5.- Dornadura aldatzea	70,69 €/M ²
6.- Zoruko lauzak aldatzea	49,20 €/M ²
7.- Hormetako alikatatua aldatzea	49,20 €/M ²
8.- Instalazio elektrikoa berritzea	24,60 €/M ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.
9.- Berotze sistema jartzea edo ur beroaren ekoizpena.	64,25 €/M ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.
10.- Horma eta sabaia pintatzea	47,13 €/M ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.
11.- Eskaiolaz, sabaizuna eta erlaitzak egitea	35,29 €/M ²
12.- Egiturazko aldaketarik egin gabe, trenkada-multzoa aldatzea	329,88 €/M ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.

Erreferentziazko moduluak eguneratzea: Urtero, Ordenantza Fiskalak onesteko ezarrita dagoen prozedurari jarraiki, erreferentziazko moduluen eguneratzea egingo da, EIOZ-ren autolikidazioaren zerga-oinarria zehaztu ahal izateko, HIAB prozedura bidez ematen diren lizentzientzat.

18. Artikulua.- Lizentziaren titularrak edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurreko jakinarazpena aurkeztu duen zergadunak baimendu edo aitortu diren obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez gauzatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko du, eta Udalak behin-behineko likidazioa itzuliko dio edo osorik deuseztatuko du.

19. Artikulua.- Lizentzia bat iraungitakoan, Udalak praktikatutako kitapenari dagokiona itzuli edo ezabatu egingo du, baldin eta titularrak ez badu behintzat horren berrikuntza eskatu eta Udalak ematen.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengo.- Toki Zergen Erregimena Aldatzeari buruzko 7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei ez zaie arau hori aplikatuko, eta hori horrela, aurreko arautegia aplikatuko zaie.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(2008ko irailaren 25an, eta 2009ko irailaren 24an, 2011eko azaroaren 11ean, 2012eko azaroaren 19ean Udalbatzak aldatua eta 2013eko azaroaren 19ean Udalbatzak aldatua)

E R A N S K I N A

APLIKATUKO DEN ARAUA	KARGAREN TASA
OROKORRA	%5
ETXEBIZITZETAN EGINDAKO 18.684 € BAINO GUTXIAGOKO KONPONKETA EDO HOBEKUNTZA LANETARAKO eta 200 m² baino gutxiagoko azalera duten lokaletan egindako obretarako TASA GUTXITUA	%2
JABEEN ELKARGOEN KONPONKETA ETA HOBEKUNTZA OBRAK ELEMENTU KOMUNETAN	%2